

**ELAren eta LABen  
proposamenak Nafarroako  
Gobernuari lan arloan  
aldaketa soziala  
sendotzeko**

Iruñea, 2017ko maiatzaren 19a

**ELAk eta LABek lan arloan eduki konkretuak dituen proposamen bat egiten dute, Nafarroako Gobernuarekin akordioak iristeko prest daudela adierazi eta galdegiten dute Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua bertan behera gera dadila**

Laster beteko dira bi urte Nafarroan gobernua aldatu zenetik. Garai politiko berri honek aukera eman dezake hiru hamarralditan izandako erregimen antisozial eta baztertzailari amaiera emateko. Aldaketa hori ez zatekeen gertatuko hainbat organizazio sozial eta sindikalek egindako lana izan ez balitz. Langile-klaseak irauli historiko honi egin zion ekarpena funtsezkoa izan zen, hautestontzietan islatu zenaren oinarria aurrez hamaika mobilizaziok -murrizketa eta kaleratzeen aurka, ustelkeria salatzeke eta aldaketa sozialaren alde- ezarri baitzuten.

Bi urteotan aurrerapauso handiak izan dira hainbat eremutako demokratizazio eta normalkuntzan. Halere, lan eremuan -eta zehatzago enplegu eta lan-baldintzei dagokienez- Nafarroako Gobernu berriak kontinuitate ulertezin eta asaldagarriari atxikita jarraitzen du.

Batetik, Nafarroako Gobernuak erabaki du ez duela CEN haserre dezakeen inolako erabakirik hartuko; horregatik, gehiengo langilearen baldintzak ez dira hobetzen ari, eta ez da mugatzen enpresei Zapateroren (2010) eta Rajoyren (2012) lan erreformek eman zieten boterea. Hau agerian geratzen da bi adibiderek: Herri-administrazioetako azpikontratetan subrogazioa eta gainerako klausula sozialak bermatzeari emandako ezezkoa, batetik, eta zerbitzuak berpublikatzeko plan handi bat sustatzeko borondate eza, bestetik.

Bestalde, PPrene erreformek gehien ahuldu duten alderdia, hots, langile-klasea, babesteko eta benetako eragina izango duen beste lan harreman eredu bat proposatu ordez, Gobernuak lehenetsi egin du Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua berreskuratzea, hau Erregimeneko "elkarrizketa sozial"aren instituzionalizazio berantiarra besterik ez den arren.

Berebiziko garrantzia duen unea bizi dugu orain, legealdiaren ekuatorera iritsi baikara. Nafarroako Gobernuak eta berau sostengatzen duten alderdiek oraindik badute lema zuzentzeko beta. Gure ustez, aldaketa eremu soziolaboralean ere isla daiteke; islatu behar da. Horregatik, ELAk eta LABek honakoa adierazten dugu:

Nafarroako Gobernuari eskatzen diogu patronalaren neurriko "elkarrizketa sozial"aren aldia bukatu eta gehiengo langilearen baldintzak hobetzeko gizarte-akordioen aldiari ekin diezaiola. Horretarako bertan behera utzi behar da Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua, eta sindikatuek eta Gobernuak agenda bat prestatu behar dute langileen egoera hobetze aldera.

Gogoratu beharra dago Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren sorrera, zeina 2014ko abenduan eratu baitzen eta 900.000 euroekin finantzatu zuten, Barcinaren taldearen azken erabakietako bat izan zela (PSNrekin adostua). Hasieran oraingo gobernua adierazi bazuen ere prest zegoela Kontseilu honi sorrera eman zion Foru Legea aldatzeko, ez da aldaketarik egin.

Lehen urtean aurreikusitako 900.000 euroko diru partida deuseztatu arren, egungo Gobernuak Elkarrizketa Sozialaren Kontseilua indarrean jarri du berriro eta Enplegu Plana onartzeko ahalmena eman dio.

Beraz, UPNk eta PSNk hitzartutako lege bera indarrean dago oraindik; honek, besteak beste, ezartzen du Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua dela "Nafarroako Gobernuak, Foru Komunitatean ordezkari handiena duten sindikatuek eta enpresaburu-erakundeek elkarren arteko bilgune izateko duten organo instituzional iraunkorra", eta "parte-hartze instituzionala sustatu eta konpentsatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak urtero kontusail bat jarriko du", zeinaren "xedeak izanen dira ordezkari handieneko sindikatu- eta enpresaburu-erakundeak, alde batera utzita (...) beren jarduerak sustatzeko jasotzen dituzten diru-laguntzak".

Horrelako organoak politika klientelarraren baitan sortu izan dira; UGTri, CCOOi eta CENi hogeitau urte luzez aurrekontu publikotik zeterren diruaz egiturak, gastuak eta liberatuen soldatak ordaindu dizkiete.

ELA eta LAB kritikoak gara finantzatzeko-eredu horrekiko ez ezik ereduarekiko berarekiko ere, patronalari beto eskubidea ematen diolako eta gainera efizientea ere ez delako, ia ezinezkoa baita erabakitzea -Kontuen Ganberako txosten batean esan zuen bezala- elkarrizketa sozialari esker lan- eta gizarte-arloetako adierazleren baten hobekuntza gertatu izana.

Horregatik, ELAk eta LABek uste dute Gobernuak beste garai bati dagokion organo hau bertan behera utzi beharko lukeela, bere emaitza eta xedeak bateraezinak baitira Nafarroak bizi duen garai politiko berriarekin.

Horrenbestez, ELA eta LAB prest gaude garai berri batean inplikatzeko, zeinetan garrantzia emango zaien edukiei eta baldintza laboral eta sozialak hobetzeko neurri konkretuei. Egungo marko juridiko-politikoan langile-klasearen aldeko erabakiak har daitezke, eta hartu behar dira.

Agiri honetan azaltzen diren neurriak berehala har daitezke, egungo esparru juridikoaren baitan. Hala ere, ELA eta LABek gogoan hartu nahi dugu aldaketa sozialean sakontzeko behar-beharrezkoa dela aipatutako esparruaren mugak gainditzea, enplegu eta babes sozialean eskuduntza osoak eskuratuz.

## **BALIZKO AKORDIOEN AGENDA**

Gorago aipatu dugun bezala, nafar langile-klasearentzat aurrerapausoak ekar ditzaketen balizko akordioen agenda taxutzeko aukera dago. Atal honetan hainbat proposamen bilduko dugu horrelako akordioak egingarriak diren gaiei buruz.

Enplegua eta bere kalitatea hobetzea da ELArentzat eta LABentzat kezkarik behinena. Nafarroako Gobernuak enplegu eta negoziazio kolektiboan hainbat eskumen duenez, erabakiak har ditzake milaka eta milaka pertsonaren lan-baldintzak hobetzeko, zuzenean kontratatua, azpikontratetako zein beste sektore batzuetako delarik ere, hauetan Gobernuak baldintzak aldatzeko ahalmena duen heinean.

### **1. Legez klausula sozialak ezarri herri-administrazioetako azpikontrata guztientzat.**

Milaka langile (20.000tik gora izan daitezke) ari da Administrazioarentzako lanean (Nafarroako Gobernuak, Udalak, Mankomunitateak...) azpikontrataturako enpresen bitartez; hauetako asko zerbitzu publikoak pribatizatzeke baliatu izan dira.

Azpikontratazio eredu honetan, zeinaren ikurra Administrazioentzako aurrezkoa den, ohikoa da lehiaketa bidez ebaztea, eskaintzarik merkeena hautatzen delarik. Honek gutxienik hiru ondorio ditu: Zerbitzu okerragoa, plantilla murrizketa eta lan-baldintza eskasagoak, kontratuak egongaitzagoak direlako eta soldatak, kaskarragoak.

Zerbitzu desberdinak modu mailakatuan publiko egitearekin batera, ELAk eta LABek Gobernuari premiaz galdegiten diogu legez berma ditzala klausula sozialak azpikontrataturak dauden zerbitzuetan, klausula hauek enpresen enkantea eragozteko eta enplegu egonkorra, nahikoa eta kalitatezkoa ziurtatzeko; halaber, beharrezkoak dira ere baldintza-agiriak betetzen direla behatzeko mekanismoak, berdintasuna kontratazioetan eta langileen ordezkarien parte hartze handiagoa.

### **2. Igande eta jai egunetan 0 irekieren aldeko akordioa.**

Merkataritza gune handien ezarpena eta presioaren eskutik, merkataritza ereduak ordutegien desregulazio eta liberalizazio handiago baterako norabidea hartu du. Azterketa desberdinek diote ez dagoela eskaerarik egun horietan irekitzeko; jendartearen kontsumo ohiturak modu mailakatuan aldatzeko estrategia bat ezkututzen da honen guztiaren atzean. ELAk eta LABek iritzi dute beharrezkoa dela kontsumismoa lehentasun ez duen eredu baten aldeko akordio politiko eta soziala sustatzea, merkataritza arloko langileen lana eta bizitza pertsonalaren arteko bateragarritasuna bermatzeko. Euskal Autonomia Erkidegoan gertatzen den bezala, igande eta jai egunetan saltokiak ireki daitezzen eragozteka da helburua.

### **3. Behin-behinekotasuna %5era murriztu.**

Nafarroako Gobernua enplegu sortzailea denik ezin da ukatu. Bere langileetatik hasi beharko litzateke. Enplegua sortzeko eta egonkortzeko aukera badago. Behin-behinekotasuna eta lanaldi partzialak gehiegizkoak dira. Nafarroako Gobernuak bere lan taldeak egonkortzeko planifikazioa egin beharko luke, behin-behinekotasuna %5era murriztu arte.

### **4. Osasun arretaren transferentzia, mutuetatik Osasunbidera.**

Mutua patronalak langileen kotizazioetatik elikatzen dira, eta enpresarien zerbitzura egiten dute lan. Lan istripu eta gaixotasunak estaltzen laguntzen dute, tratamenduak azkartzen dituzte eta langileak lanera ahalik eta azkarren itzultzeko presioa egiten dute. Hau guztia gutxi balitz, kudeatzen duten dirua desbideratu eta bidegabe erabiltzeagatik lotutako eskandaluetan nahastuta egon dira.

Honen aurrean, posible eta desiragarria da osasun arreta mutuetatik Osasunbidera aldatzea. Horrekin, langileei eskaintzen zaien arreta hobetzeaz gain, osasun sistema publikoa indartuko litzateke, langileen euren kotizazioak sisteman inbertituko liratekeelako.

Nafarroako Gobernuak prozesu hau bultzatzea dezake: lehenik, bere baitan dauden 25.000 langile baino gehiagoren lan kontingentzien kudeaketa transferituta, Mutua Navarratik Gobernuaren beraren autoaseguru-etxera; eta bigarrenik, Osasunbidearen garapena planifikatuta, enpresa pribatuetako langileak bere gain hartuz, kontingentziak mutuetatik Gizarte Segurantzara transferitu eta gero.

### **5. Berdintasunaren aldeko Europako Zuzentarauaren aplikazioa lan sarbidean.**

Lan sarbideari dagokionez, ezin da pertsona bat diskriminatu sexu, arraza, ideologia edo beste ezaugarri batengatik. Hauxe da 2000/78 Europako Zuzentarauak dioena, Estatu kide guztietan nahitaez bete beharrekoa. Hala ere, Nafarroako industria arloko enpresa nagusietako batzuetan sistema diskriminatzaile bat erabili da, eta erabiltzen da, kontratazioak egiteko.

VW enpresaren adibidea esanguratsua da: alde batetik, emakumeek lan taldearen %11 osatzen dute, gizaratearen erdia izan arren; bestalde, UGT eta CCOOen eredu klientelarraren ondorioz sindikatu hauetan afiliatuta ez dauden langileen %90 diskriminatu ohi dituzte. Enpresak, UGTk, CCOOk eta Koadroek diskriminazioa ahalbidetzen duen akordio bat hitzartu dute, enpresak eta enpresa batzordeak 2016ko udazkenean adostutakoaren kontra. Orduan, Europako zuzentarauak ardatz, eta enpresa batzordearen ikuskapena oinarri, adostu zuten enplegu publiko, egiaztagarri eta garden bat bultzatzea, lan taldea jakinaren gainean edukita.

Nafarroako Gobernuari egoera honekin amaitzeko eskatzen diogu, ondoko neurriekin:

- Garapen legegile propioa, 2000/78 Europako Zuzentarauaren aplikatzea bultzatzeko
- Diskriminaziorik gabeko kontratazioak gauzatzeko protokolo bat osatu eta hedatu
- Diru laguntza publiko guztiak protokolo horren arabera bideratu

### **6. Lan Auzitegiaren demokratizazioa eta berritzea.**

Lan gatazken prozedura estrajudizialetan parte hartzeko interesa erakutsi dute sarritan ELAk eta LABek. UGT, CCOO eta CEN sindikatuek, lehen biek batez ere, historikoki saihestu dute ELA eta LABen parte hartzea aipatutako auzitegian.

Honen ondorioz, Nafarroako Lan Auzitegia erakunde horien neurri diseinatu dute. ELAk eta LABek uste dugu, gure bazterketarekin amaitzeaz gain, Nafarroako Lan Auzitegia birsortu egin behar dela bere eginkizuna bermatzeko eta, besteak beste, auzitegi honen bitartez erakunde sindikal eta patronalen finantzazioa saihesteko. Hau dela eta, Nafarroako Gobernuari auzitegi honen birsortzeari buruzko eztabaidari hel diezaiola eskatzen diogu.

## **7. Lan Ikuskaritza propio bat sortzea.**

Lan Ikuskaritzan eskumenik izan gabe jarraitzen du Nafarroak. Eskumen honen aldarria ez da agenda politikoan ere egon, gai honen inguruan Nafarroako Gobernuak hamarkadatan erakutsitako utzikeriaren eta ezetzaren ondorioz.

ELAk eta LABek uste dugu lan arloan enpresa ugari egin ohi dituzten urraketen aurrean zaintza, zigor eta kontrolerako aukerak zabalduko liratekeela Lan Ikuskaritzaren transferentziarekin eta borondate politiko sendoago batekin.

Hori dela eta, Nafarroako Gobernuari Lan Ikuskaritzaren eskumena Estatuaren aurrean aldarrikatu dezala eskatzen diogu, eta eskumen hau lortzeko beharrezkoak diren ekimen politiko eta sozialak abiatu ditzala.

## **8. Lan osasuna. Prebentzioko delegatuen formakuntzarako akordioa.**

Lan istripuen areagotzeak frogatzen du Lan Osasuna ez dela lehentasun bat. Iritzi dugu beharrezkoa dela kontrol, ikuskaritza eta zigor eredugarrien ariketa sendotzea enpresen gainean. Istripuen prebentziorako neurri egokiak hartuko balira, eta sortzen den enplegua kalitatezkoa balitz, lan istripuak areagotzeko arrazoirik ez legoke.

Urtetan zehar, Nafarroako Gobernuak lan osasunera bideratutako dirua murriztu du, hitzarmen nominatiboen bidez diru publikoa UGT eta CCOOen eskutan jartzen zuen bitartean. Ustez lurraldeko prebentzio ordezkariak zirenak, praktikan erakunde horiek finantzatzeko formula bihurtu ziren. Gobernu berriak aipatutako hitzarmenak bertan behera utzi baditu ere, administrazio publikotik garatu beharko liratekeen prebentzio lanak azpikontratatzeko 850.000 euroko partida mantendu da.

Enpresetako langileen ordezkarien formakuntza, prebentzioko delegatuena, legeak jasotako betebeharrak bat da, gainera. Inbertsio bat prebentziorako.

Arlo honetan, ELA eta LAB prest gaude Nafarroako Lan Osasunaren Institutuan inplikatzeko, prebentzioko delegatu guztientzat formakuntza plan bat abian jartzeko Nafarroan.

## **9. Hizkuntza eskubideen garapena lan arloan.**

Hamarkadetan zehar, euskararen kontrako politika pairatu dugu bai lantokien kanpoan baita barruan ere. Milaka euskaldun daude lantokietan, eta hauei euskaraz lan egiteko eta hitz egiteko eskubidea urratzen zaie etengabe.

Gobernuari berariazko plan bat proposatzen diogu, lan munduan euskararen normalizazioari hel diezaion, euskararen ikaskuntza eta erabilera sustatuz Foru Administrazioan bertatik enpresa pribatuetara orokorrean, egitasmo pilotuak bultzatuko dituzten programen bitartez, sindikatuekin lankidetzan.

## **10. Enplegu berdeak.**

Jarduera iraunkorrak sustatzea oinarrizkoa da, ekonomia, gizarte eta ingurumen ikuspegi batetik. Gero eta nabarmenagoa da egungo ekoizpen, banaketa eta kontsumo eredu aldatzeko dagoen premia.

Zehatzegiak izateko asmorik gabe, enplegu arloan indargune handi bat dago energia berriztagarrietan, hondakinen kudeaketa eta tratamenduan, lursoruen birsorkuntzan, nekazaritza ekologikoan (eta lehen sektorea eta gainontzeko sektoreen arteko interrelazioan), kutsaduraren kontrola eta prebentziorako... Gobernu honek hori guztia bultzatu beharko luke.

Hori dela eta, ELAk eta LABek atal honi heltzeko eskatzen diogu Gobernuari, berariazko plan baten bitartez.